

TXIKITTO



*Liburutegiko
txiki-txokoa prest*

BERRIAK · BERRIAK · BERRIAK · BE

Hirugarren hiruilekoan ere lan eta lan **Arrateko Andra Mari** eskolan. Alde batetik, txotxongilo erakusketa ikustera joan ziren hainbat txandatan eta umeak oso pozik etorri ziren.

Arrateko Andra Mariko 4 eta 5 urteko umeak Basondora joan ziren egun pasa. Eta ekintza potoloena Ate Irekiak eguna izen zen, eskolako jai polita. Puzgarriak, cart-ak, erroskilak, txokolatea, taloak, makilaia eta abar. Egun polita igaro zuten denok elkarrekin, ikasle, guraso, irakasle eta baita ikasle ohi eta bisitariak bisita etorritakoak.

Orain hurrengoak prestatzen dihardute. Laster 3. eta 4. mailakoak Deba ibaiaren jaiotza ikustera joango dira, eta nahi gabe azken ekintzetan pentsatzen hasi behar dira.



Apirilaren 3 eta 4an, **La Salle** ikastetxeko 1. mailakoen egun bi pasa zituzten Zarautzen. Bertan, oso ekintza dibertigarriak egiteko aukera izan zuten. Horien artea itsasoan ibili, arrantza egiteko apa-rejoak egin, mendi buelta... hori guztia umoretsu eta giro ederrean!

Apirilaren 7tik 11ra, bestalde, **KULTUR ASTEA** ospatu zuten La Sallen. Asteazkenean zehar jai egitarau zabala garatu zuten: pregoia, buruhandiak, magia, bisitaldiak... Ederto pasatu zuten!

Hiruhilabeteko honetan jolas berri bat landuko dute herriko ikastetxe ezberdinetako ikasleek. EBPnren barruko ekimen honen helburua jolasean lagunekin eta gurasoekin euskaraz aritzeko ohitura bultzatzea da. Horrela, 3. hiruhilabete honetan 'Ikusi-makusi' eta 'Zubiri zubirira' arituko dira. 'Maria', 'Kainete', 'Txakur bat erosi dut' eta 'Karabin Karaban' jolasak landu dituzte aurretik ikasleek.

● Otsailaren 29an **Urkizu** eskolako 3. eta 4. mailako ikasleak, Amañako zine aretoan izan ziren “Malabar printzesa” filma ikusten. Hunkigarria izan zen eta zelako paisaia ederrak atera ziren!

Apirilaren 9an, Urkizu eskolako 6. mailako ikasleak, Juan San Martin Udal liburutegi berriztatua ezagutzera joan ziren. Ea ba hemendik aurrera euren kontura ere joaten diren, bidea ikasi dute-eta.

Apirilaren 22an, Urkizu eskolako Haur Hezkuntzako lau eta bost urteko haurrak eta 1. eta 2. mailako ikasleak, Amañako zine aretora joango dira “Lagundu arraina naiz” filma ikustera.

Maiatzaren 7, 8 eta 9an, Urkizu eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak Arantzan egongo dira. Hori bai paraje ederra!

Maiatzaren 8 eta 9an, Urkizu eskolako 3. eta 4. mailakoak Zarautzeko aterpetxera joango dira. Horretarako zenbat egun falta diren egunero kontatzen dute.


Maiatzaren 20an eta 22an, Urkizu eskolako aretoan gurasoentzako jaialdiak eskainiko ditugu. Antzerkia, dantza, musika, poesia eta abar. Zein ikuskizun dotoreak izango diren!

Maiatzaren 20an eta 22an, Urkizu eskolako aretoan gurasoentzako jaialdiak eskainiko ditugu. Antzerkia, dantza, musika, poesia eta abar. Zein ikuskizun dotoreak izango diren!



● Hainbat literatur jarduera jasoko dituzte Eibarko ikastetxe ezberdinetako ikasleek datozen egunotan. Izan ere, hainbat ikasle hurbilduko dira eskoletara, idazleak hurbiletik ezagututa euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko. Hauek izan ziren herriko ikastetxeek egindako eskaerak: J.A. Mogelek Joxe Antonio Ormazabalaren bisita jaso zuen apirilaren 22an, Arrateko Andra Marira Rai Bueno joatea nahi zuten maiatzean eta Peio Añorga Aldatzera joatekoa da maiatzaren 28an. La Salle Isasik eta Urkizuk Enkarna Genua eta Jasone Osoro elgoibartarra joateko eskatu zuten, hurrenez hurren, baina ezezkoa eman zuten idazle biek.

zu margolari



**ELEFANTE MUSIKARIA AURKITU
DUGU HILABETE HONETAN.
ZER NOLAKO KOLOREAK
ERABILIKO DITUZU?**


DENBORAPASAK

Aurkito letra Sofan hitz hauek:

E	R	M	U	A	I	H
F	I	Z	A	H	J	L
K	Q	B	I	L	B	O
Z	A	R	A	U	T	Z
J	R	M	S	R	L	G
D	O	N	O	S	T	I
I	N	Z	I	O	L	A

- Eibar
- Zarautz
- Donosti
- Ermua
- Bilbo

Aurkito 7 diferentziak:




Maria Ezena

LETRA SOPA


u	n	t	z	a	g	a	c	m	n	o
r	h	i	e	i	b	r	h	w	x	y
n	g	b	h	g	B	d	g	M	z	o
o	b	z	u	l	o	a	g	o	a	k
a	i	m	i	z	w	n	i	t	i	t
k	k	m	n	g	r	r	l	a	h	a
a	i	u	r	h	i	z	u	a	l	x
g	a	l	e	r	i	a	a	A	P	w
m	B	B	a	r	e	e	a	z	g	

→ Bilate Etxeko txikia

Oier aginaga



-Bidea egin -katea, omea kartiera jan behin da.



Maria Ugartebea,

AKATSAK ZUZENTZEN

ZENBAT BIDER ESAN OTE DUTE
MAISU ETA ANDEREÑOEK
AKATSAK ERREPIKATZEN
DIRELA! ORAINGOAN ZENBAT
DAKIZUEN ERAKUSTEKO AUKERA
IZANGO DUZUE ETA, GAINERA,
SARI BAT JASO DEZAKEZUE.
ESALDI HAUETAKO BI TXARTO
DAUDE. PARTE HARTU
LEHIAKETAN ETA, ASMATUZ
GERO, SARIA IRABAZI
DEZAKEZUE!

HILABETEKO IRABAZLEA



IÑIGO SUSAETA



- Zinemara joan ginen zapatuan.
- Etxerako lanak bukatutakoan telebista ikusiko dut.
- Jolasten dugu a botian-bote?
- Eibarrek 1-0 irabazi zion Errealari.
- Kanean ikusi zintudan herenegun.
- Amaliok pentsatu zuen oso ideia txarra zela.
- Marraskiloak jatea gustuko dut.
- Egun ona izan duzu?

Izena:

Telefono zenbakia:

aferbe liburudenda
zezenbide 9



Jaimitok dio:

- Ba al dakizu zein den gustuko dudan dorrea?
- Pizza dorrea.

Veronika Azkarraga



Banpiro bi elkartzen dira eta batek muturra odolez beteta du. Eta esaten dio batak besteari:

- Non aurkitu duzu odol hori?
- Eta besteak erantzuten dio:
- Ikusten duzu zutabe hori?
- Bai.
- Ba nik ez dut ikusi.

Iratxe

- Zer ari zara katuari ematen?
- galdetzen dio amak semeari.
- Alpistea –erantzuten dio semeak.
- Baina ez nizun esan alpistea kanarioarentzat zela?
- Bai, baina... kanarioa katuaren sabelean dago.

Esmeralda Armendia

Ingeles bat, frantses bat eta tolosar bat berbetan daude eta frantsesak esaten du:

- Perfum de rosas.

Ingelesak:

- Chanel number 5.

Tolosarrak puskarra bota eta esaten du:

- Tolosako babarrunak.

Ainhoa Porrás

- Aita! Zuk errieta egingo zenioke ezer egiten ez duen mutil bati?
- Ez –erantzuten du aitak.
- Orduan lasai esango dizut ez ditudala etxeko lanak egin.

Leire Gil

Zaldun batek zera idazten dio bere neskari:

- Oh nere maitea, zer ez nuke egingo zu berriz ikusteko? Mila baso gurutzatuko nituzke, ehun herensugeren aurka borrokatuko nuke...

Eta neskak idazten dio:

- Horrela bada etorri orain.

Eta zaldunak idazten dio berriz:

- Orain? Euria egiten ari da barren!

Andrea Lupeña

Ipar Amerikako hegoaldean indiar bat eta bakero bat zeuden eta lasterketa egin zuten. Orduan, indiarrek puzkerra botatzen du eta, azkenean, bera suertatzen da garai-le. Orduan, bakeroak esaten dio.

- Zuk motorra daukazu ipurdian!

Ibai Laguna

Egun batean, ume bat eta bere aitona foball partidu bat ikusten ari ziren telebistan. Orduan, aitonak puzker bat botatzen du eta umeak esaten dio:

-Puzkerra bota duzu!

Eta aitonak esaten dio:

-Ni ez naiz izan, ipurdia izan da.

Danel Vila



Lapur bat etxe batean sartzen da eta han ez zegoen inor. Gaua zen eta linterna piztu zuen gauzak non zeuden ikusteko. Bapatean ahots bat entzuten da:

-Jesus begira daukazu –dio ahotsak.

Lapurra izutu egiten da eta ahotsa nondik datorren bilatzen saiatzen da. Orduan, konturatzen da berbetan zegoena loro bat dela. Loroa bere kaiolan ikusten du eta bere izena 'Testakles' dela ikusten du. Orduan, lapurrak esaten dio:

-Zelako izena duen loro honek.

Eta loroak esaten dio:

-Ba doberman bati Jesus izena ipintzea ere...

Leire Perez



Emakume bat txoridendan sartu eta kaiolan dagoen txoriak zein izen duen galdetzen dio saltzaile gazteari. Mutilak esaten dio:

-Auskalo!

Eta emakumeak:

-Oi, zein auskalotxo polita!

Asier Pisa

-Ama! Ama! Eskolan Ranbo esaten didate.

-Lasai seme zuzendariarekin hitz egingo dut.

-Ez, ez, hau nire misioa da.

Saioa



Ba omen zen behin Donostiara sekula jaitsi gabeko baserritar bat. Eta trenean ibili behar zuela-eta, zuzen-zuzenean geltokira jaisten da. Hantxe maletak hartu, eta geltokian alde batetik bestera oinez, tipi-tapa, tipi-tapa, alde batetik bestera. Hamar minutu, hogeit hamar minutu, ordu erdi bat, eta tipi-tapa, tipi-tapa, batetik bestera oinez. Geltokiko gizona joan zaio eta:

-Baina, gizona, zure trenea oraindik ez da etorriko, eta eseri zaitez.

-Aizu, ni baserritarra naiz, baina ez analfabetoa, eh? Hor 'anden' jartzen du, eh?

Mikel



Foball zelai batean 100.000 ikusle, 22 jokalaria, arbitro bat, bi marrazain eta txoritxo honek niri kaka egin behar!

Alex F.



Moja bi motorrean doaz eta inork pasatzea lortzen ez duen kurba arriskutsua garbi-garbi, zast, pasatu egiten dute. Beste aldean ertzainak daude eta esan diete:

-Nola lortu duzue kurba hori pasatzea?

Eta moja batek:

-Jesus gurekin dago eta.

-Beno ba, orduan multa motorrean hiru joateagatik.

Mikel A.

Soldadu batzuk hegazkinean daude, paraxutarekin botatzeko prest. Bat-batean soldadu batek esaten dio kapitainari:

-Kapitaina, kapitaina, Jaimito paraxutik gabe bota da!

Eta esaten dio kapitainak:

-Berriro!

Josu A.

Zaborrean lanean

Baziren behin beti beraien bizitza kontatu zio-
 lanean zeuden ume lanen, baina Gerbaxiok ezin
 batzuk. Umeek zituen umeak egun guztian
 zaborretan egiten lanean ikusi eta pentsatu
 zuten lan. Ez zeki- zuen: *“Umeak eskolan egon
 ten ez idazten, ez irakurtzen. beharko lirateke, eta ez
 Egun batean Gerbaxio zaborrean lanean. Askok
 izena zuen gizon bat ume ikasi behar dute hobeto
 kin elkartu zen. Hurrek bizitzeko. Baina eskolara*



*joan baino lehenago, opor-
rrak behar dituzte”.*

Umeak oso pozik geratu ziren oporretan zeudelako. Lehendabiziko aldiz igerilekura, hondartzara eta jolas-terera joateko denbora izan zuten.

Oporrak pasa ondoren umeak eskolara joan ziren. Lehenengo egunean oso ondo pasa zuten, bigarrenetan hobeto. Lan asko egin zuten eta, gainera, asko ikasi zuten. Eskolan asko laguntzen zieten eta handiak egiterakoan unibertsitatera joan ziren. Bat medikua izan zen, bestea erizaina, beste bat maisua eta bestea herriko alkatea.

Denak zeuden beti elkarrekin. Norbait zaborrean lanean ikusten bazuten, lagundu egiten zioten, eta ikastetxean beraiei langundu zieten bezala, orain, beraiek ere berdina egiten zuten.

Urte asko pasa eta gero,



Gerbaxiorekin elkartu ziren. Eskerrak emateko abesti bat abestu zioten. Denok elkarrekin ospatu zuten afari batekin. Eta handik aurrera pozik bizi izan ziren denak.

IDOIA LAHIDALGA

TXIKI HOROSKOPOA

ARIES



Faltan bota duzu txikihoroskopo? Seguru ezetz, izan ere, dena oso ongi joan zaizu orain arte. Datorren aste biak makal pasatuko dituzu, baina hortik aurrera irribarrea izango duzu ahoan berriz ere.



TAURUS

Udaberriarekin loretxoak hazten dira, eguzkia berotzen hasten da eta dena da zoragarria. Baina alergiaren bat badaukazu... sentitzen dut! Mukiak, buruko mina, malakoak... a ze komeria!



GEMINIS

Ez nau harritzen gaua heltzean lotara joateko irrikitan egotea, izan ere, egun osoan gora eta behera zabilta, korrika, jolasten... ez zara gelditzen! Hori oso ongi dago, ahalik eta ondoen pasatzen saiatu behar zara!



CANCER

Ez duzu uste piska bat beldurtia zarela? Auzartaren itxura eman nahi duzu, baina azken finean kakati bat zara. Datorren hilabetea agerian geratuko da hori, gauza berezi bat gertatuko zaizu-eta.

LEO



Zertarako nahi duzu maskota bat etxean? Gurasoek nahikoa dute zurekin! Ez zaitetz haserretu, baina askotan zure portaera ez da oso egokia, askoz ere hobeto portatu beharko zinateke.



VIRGO

Beste planeta batekoa dirudizu. Zenbat tontakeri egiten duzun! Egia esan, zure ondoan daudenek barre asko egiten dute zure kontura eta hori ez da gutxi. Umerorako dohaiak dituzu, aprobe txatu itzazu!

TXIKIHOROSKOPOA



Familiakide bati min egingo diozu datorren hilabetean behin baino gehiagotan. Gauza da zuk ez duzula ezer berezirik bere aurka, baina berari tokatu zaio eta horrela dira gauzak. Hori bai, ez zaitetz gehiegi pasatu!



Musika munduan aritzea gustatuko litzaizuke? Ba, ahotsa asko hobetzen ez baduzu jai daukazu! Gurasoek oso ondo egiten duzula esan dezakete, baina ez zaitetz gehiegi fidatu, azken finean zure gurasoak dira.



Alferrontzia! Beti besteen lanaz aprobeztatzen, ez daukazu lotsarik! Helduko da gauzak zure kabuz egiteko ordua eta orduan izango dira komeriak. Beraz, espabilatu egin beharko zinateke.



Errepidea gurutzatu baino lehenago ondo begiratu alde bietara. Egiozu kasu hemen jartzen duenari, astroek asko dakite-eta! Kotxeak oso arriskutsuak dira eta kontu handiarekin ez bazabiltza... akabo!



Hurrengo egunotan inoiz baino eskuzabalago sentituko zara. Edozeini laguntzeko prest, daukazuna besteei eskaintzeko gogoarekin... zein bihotz handia duzun! Ea egun batzuetako kontua baino gehiago den.



Txoritxo gehiegi duzu buruan. Maitasunaren kontuak! Txarrena beste pertsonak ez dizula kasu askorik egiten. Hala ere, ez etsi, bere barrenean zuretako lekua dago-eta, baina hori aurkitzen saiatu behar zara. Zorte on!

WWW.TEATRO-TESTUAK.COM

Antzeztea gustoko baduzu web orrialde hau da zurea. Antzezle batek, bere talentuaz gain testu bat behar du antzezteko, istorio bat. Webgune honek hainbat antzerki-testu eskaintzen du. Itzulpenak, bakarrizketak, eskola antzerkiak, haurrentzako antzerki-testuak... ez da aitzakiarik



egongo ez antzezteko. Eskola antzerkien sailean hamar lanetik gora aurki daitezke pdf formatuan. Eskola ezberdinek egindako antzerkien testuak jaso daitezke. Haurrentzako testuen artean, berriz, zortzi antzerki-testu agertzen dira. Rodariren 'Danbor Magikoa', Atxagaren 'Jimmy Pottolo eta zapataria', autore beraren 'Logalea zeukan ekilibristaren kasua', Lorcaren 'Juan Kristobal eta andere Rositaren tragikomedia', de Pedroren 'Haddock' eta Kamararen 'Ekidazu', 'Kukubel' eta 'Txirrikiz'.

WWW.GALEON.COM/JAIONERE/1EUSKARA.HTM

Barakaldoko Mukusuluba eskolako irakasle baten webgunea dugu hau. Irakasle baten egoera zela-eta, ordenagailua erabiltzen hasi zen eskolan irakasten zuena azaltzeko. Piskanaka-piskanaka gustua hartu zion ordenagailuari eta web orrialde honetan berak lortutako gauzak eskaintzen dizkigu besteei baliagarria izateko esperantzarekin. Horrela, matematikak lantzeko hainbat jolas agertzen zaizkigu memoria, batuketak, kenketak eta abar lantzeko. Gif animatu batzuk jaitsi nahi izanez gero, webgune honek hainbat eskaintzen dizkizu. Zure adimena lantzeko jolas eta ariketak eskaintzeaz gain, zuk ere horrelako webgune bat egiteko laguntza eskaintzen dizu. Horrela, erabili dituen aplikazioak, programak eta helbide interesgarriak azaltzen dira web orrialdean.



erreportajea



Liburutegi berritua zabalik!

Hainbat hilabetetan zabaltze eta berrantolatze lanengatik itxita egon eta gero, Juan San Martin liburutegiak bere atea ireki zituen duela egun gutxi. Berritasun handiak ditu liburutegiak, horien artean umeentzako gune propio bat. Gainera, txikienek ere beraientzat lekua aurkituko dute: Txiki-Txokoa.

Orain dela egun gutxi ireki dute berriz ere Juan San Martin Udal Liburutegia.

Obretan egonda, izan ere, berrehun bat metro karratu gehitu dizkiote bere azalerari eta horregaitik egonda itxita azken hilabetetant. Liburutegi osoan antzeman daitezke aldaketak: gauzak lekuz aldatu dira, txoko berriak gehitu dituzte... baina aldaketarik nabarmenena umeei zuzenduta dagoen txokoak jasan du.

Nagusien guneaz gain, beste txoko garrantzitsu bat izango du Juan San Martin Liburutegiak. Izan ere, berritasun lanen ostean, umeen liburutegia lekuz aldatu da eta espazio gehiago hartu du. Hemen, 3 eta 14 urte bitarteko umeei eurentzat bereziki pentsatutako eta prestatutako gunea izango dute. Horrela, euren ezaugarrietara moldatutako txokoa izango dute umeei, liburutegiko beste guneetatik kanpo.

Liburutegia handitu aurretik, gazteentzat pentsatuta zegoen





gunean 32 umerentzat tokia zegoen eta orain, berriz, 48 ume jarrita egoteko txokoa dago. Horrez gain, lehen baino ordenagailu gehiago izango dute eskura, euren lanak eta bestelako kontsultak egin ahal izateko. Ordenagailuez gain, umeek liburu eta disko ezberdinak izango dituzte eskuragarri eta, nahi izanez gero, maileguan hartu ahal izango dituzte, etxera eraman ahal izateko.

Txiki-Txokoa

Aldaketa handiak izan dira lanen ostean. Aldaketa nagusienetariko bat Txiki-Txokoaren sorrera izan da. Areto hau umeen liburutegiaren barruan dago eta 5 urtetik beherako umeentzat pentsatu dute. Bertan, helduen laguntzarekin irakurketan lehen pausoak emateko aukera izango dute umeek. Eurentzat aproposak diren liburuak eskuragarri izango dituzte eta, horrez gain, adin horretako umei egokituta-

ko altzari eta jolasekin hornitu dute gune berria.

Liburutegiko lanak amaituta, ekintza berriak antolatu dira. Horrela, apirilaren 24an 'Familiak ere kontatzen du' izenburupean, etxeko girotik hasita, haurrak liburu, irakurketa eta liburutegira hurbiltzea nahi izango da umeen liburutegian. Ekimen hau heldu batekin doazen 3 eta 5 urte bitarteko umei zuzendutakoa da. Apirilaren 26an, berriz, Begoña Gomez ipuin kontalaria egongo da Kandelen Argipean programarekin 18.00etatik aurrera leku berean.



ZER EGITEN DUZU KLASETIK IRTETEAN?



**MIKEL
ELIZONDO.**

9 urte

Etxeko lanik badut, etxeko lanak egiten ditut. Bestela, lagunekin jolastera joaten naiz kalera. Hala ere, danborradan eta xakean ere aritzen naiz.



**MAITE
ORTEGA.**

9 urte

Nire lagunekin geratzen naiz eta parkera joaten gara jolastera. Gainera, xakean ikasten dihardut eta horretan aritzen naiz egun batzuetan.

Txirriñak jo eta arratsaldean klasetik irteteko irrikitan egoten dira ikasle asko. Jolasteko, ondo pasatzeko eta lagunekin egoteko garaia da hori!



MARINA ESTEVEZ.

10 urte

Lagunekin jolasten dut gehienetan. Beste batzuetan, ingeles klaseetara noa edo xakean jolastera. Horrekin guztiarekin amaitzean etxeko lanak egiten ditut.



MARKEL BERRIZBEITIA.

9 urte

Klasetik irtetzean foballean eta eskubaloian jokutzen dut normalean. Gainera, ingeles klaseetara joaten naiz eta xakean jolastera, baita ere.

MULTIKIROLAK

Hirukote honek foballean dihardu gaur egun multikiroletan. Gainera, oso gustura ari dira, beste kirolen gainetik hau atsegin baitute. Ez dute zalantzarik: denak animatuko lituzkete multikiroletan izena ematera.

-Zein kirol ari zarete egiten?

(Denok): Foballa.

-Gustuko duzue?

(Denok): Bai, asko.

Ibrahim: Niri beste kirolak baino gehiago gustatzen zait foballa.

-Zein kirol egin duzue orain arte?

(Denok): Eskubaloia eta errugbia.

Maria: Gero, bakar-kako kirolen artean atletismoa eta judoa egin ditugu.

-Egindako kirol guztietatik zein gustatu zaizue gehien?

(Denok): Foballa.

Maria: Eskolan beti foballean egiten dugu, beraz, hori da gehien





Ibrahim El Moussoui, Maria Calvo eta Jimey Ruiz:

"FOBALLA DUGU KIROLIK GUSTOKOENA"

gustatzen zaidana.

-Eta zein gustatu zaizue gutxien?

Jimey eta Ibrahim:

Niri errugbia.

Maria: Niri eskubaloia gustatu zait gutxien. Ez dakit zergaitik, baina gutxien gustatu zaidan kirola izan da.

-Zer duzue nahia-go: bakarkako kirolak edo taldekakoak?

(Denok): Taldekoak.

Ibrahim: Taldeka egitean hobeto pasatzen dugu bakarka baino.

Jimey: Hobe da kirola taldeka egitea bakarka baino.

Maria: Bai, kirola taldeka egitea atsegina da.

-Jendea multikiroletan apuntatzera animatuko zenukete?

(Denok): Bai.

Ibrahim: Hobe da

kirola egitea, ez egitea baino. Beraz, dudarik gabe animatuko nuke jendea multikiroletan izena ematera.

Maria: Nik esango nieke oso ondo pasatuko dutela kirola egiten eta, multikiroletan izena ematen badute, ondo aprobetxatuko dutela denbora librea.

Jimey: Kirola egiterakoan denak elkarrekin gaude eta horrela oso ondo pasatzen dugu.



'Mihiluze' saioko aurkezlea da Kike

Amonarriz, Ilaski Serranorekin batera.

**Saioak arrakasta handia izan du orain arte,
momentu barregarriak eskainiz eta euskara
umorearekin landuz.**

*-Zein da mihiluzeagoa: Ilaski
ala zu?*

Dударик gabe, Ilaski. Hori programa
maz programa ikusi daiteke eta
alde handia dago, gainera, bion
artean.

*-Adin guztietako jendeak
ikusten dute saioa. Zein da
zuen sekretua?*

Denek jolasteko moduko programa
bat da. Azken finean, proba oso
ezberdinak dira, bakoitzak hizkun-
tzarekin eta komunikazioaren oso
alde ezberdinak ukitzen ditu,
baina denetan jolastu daiteke
asko, gutxi edo ezer jakin gabe.

*-Norekin sentitzen zara eroso-
ago: nagusiekin edo umee-
kin?*

Denekin oso gustura gabilta eta
daukagun politena hori da, senti-
tzea adin guztietako jendea begi-
ra daukagula, adin guztietako jen-
dea daukazula lehiakide, ondo
pasatzen duzula, eta eurak ere
oso eroso eta gustura sentitzen
direla.

*-Ikusten denez, oso ondo
pasatzen duzue saioan.*

Gauza bat argi daukagu: edo guk
ondo pasatzen dugu, edo jendeak
ez du ondo pasatuko. Guk ez

badugu ondo pasatzen, saioak ez du aurrera egingo.

***-Zein da gehien gustatzen zai-
zun proba?***

'Tribuaren berbak', 'esamesak',
'potokumeak' eta 'eroglifikoak'.
Guk sortutako eta diseinatutako
probak direlako.

***-Mihiluzen bizi izandako
momentu bereziren bat?***

Oso momentu polita izan zen
Andoni Egañak Sebastastian
Lizasok berari eta berari buruz
kantatutako bertso bat jarri, eta
osorik asmatu ez zuenean. Lekura
ailegatu orduko Sebastianek
kaskarrekoa eman zion Egañari.


***-Zer esango zenieke Eibartik
zuen saioa jarraitzen duten
ikusle gazteenei?***

Eibar oso herri mihiluzea izan da beti
eta hori erakutsi egiten da. Eibarko
gaitzizenak hor daude, berba
egiteko modua, euskera oso aberatsa
daukazue eta halaxe frogatu digute
Eibartik etorritako mihiluzeek. Beraz,
gehiagoren zain gaudel!




FAROLTXOA

Kartulina erabiliko dugu gehienbat, baina horrelako material sinplearekin ere gauza izugarria egin daiteke. Jarraitu pausoak eta ikusiko duzu zer nolako apaingarri polita egingo duzun zure logela edo eskolarako...





MATERIALA:

- Bi kartulina edo kolore bereko paper sendoa.
- Koloretako orri gardena.
- Guraizeak.
- Kola.



NOLA EGIN:

- 1- Kartulina edo paper sendoa erditik tolestu.
- 2- Guraizeekin mozketak batzuk egin tolesturaren ertzean. Ondo pentsatu zein estilotan egin eta aukeratu zure gustukoena. Orria berriz ere zabaldu.
- 3- Koloreetako orri gardena erabiltzeko ordua heldu da. Kartulina baino txikiagoa den karratu bat moztu. Orria kartulinan itsatsi, ertzak kolarekin bustiz.
- 4- Faroltxoa osatzeko zilindro bat egin kartulinarekin (orri gardena barrualdean geratu behar da).
- 5- Kartulina hartu eta zilindroaren oinarriaren neurri bereko biribil bat egin. Lau zatitxo itsatsi ondo finkatzeko. Ondoren, silueta moztu eta zatitxoak goruntz begira utzi.
- 6- Zatitxoek kanpoaldean kola ipini eta biribila zilindroaren oinarrian sartu. Oinarri biribila zilindroaren paretetara ondo itsatsi, zatitxoei ondo sakatuta.
- 7- Kola ordu batzuk lehortzen utzi. Lehortutakoan haria lotu alde bietan. Ale bitan zulo bi egin ditzakezu, haria horietatik pasatu eta alde bakoitzean korapiloak egin, askatu ez daitezen.
- 8- Faroltxoa eskegi.



HALA IZAN ZEN


ZAZPI IPUIN HAUETAN IRUDIMENA DA NAGUSI. ALEGIOTAN ALFABETOA NOLA SORTU ZEN, NOLA IDATZI ZEN LEHENENGO GUTUNA, ETA ANIMALIAK PROTAGONISTA DIREN BESTE BOST IPUIN DITUZU IRAKURGAI. ANTZINAKO HERRIEK GAUZEN ZERGATIA NOLA ULERTZEN ETA AZALTZEN ZUTEN KONTATZEN DIGU KIPLINGEK BERE IPUINETAN, HAURTZAROKO IRAKURKETAK ETA HINDUEN KULTURA BATUZ. IPUIN BAKOITZAREN BUKAERAN BERTSO SORTA BAT AURKITUKO DUZU, IPUINAREN GAIA LABURBILTZEN DUENA.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

NI EZ NAIZ TXOTXOLO...

MARTINEK ZAKUR BAT NAHIKO LUKE; NORAK ESKOLAKO FOBALL TALDEKO KAPITAINA BILAKATZEAREKIN AMESTEN DU. ALIREN GOGOA, BERRIZ, PLAY STATION BAT LORTZEAZ GAIN 'NORMALA' IZATEA LITZATEKE. NESKA MUTIL HAUEN EGUNEROKO BAKARDADEETARA HURBILDUKO GARA, MODU 'ALAI' BATEAN. BERAIEI BARRUKO HUTSUNEA KANPORATUKO DITUZTE; BERAIEI GOGOAK AZALDUKO DITUZTE, BALOREAK ANTZERKIAREN ISPILUAN IKUSIZ... MODU XELEBRE ETA DIBERTIGARRI BATEAN.



BELE BELTZ PIRATA

1660. URTEAN, JAQUES LAGARDEN GAZTEAK FAMILIAREN OHITURARI JARRAITZEA ERABAKI ETA PIRATERIARI EGIN ZION, 'BELE BELTZ' GERRA-IZENA HARTUTA. BESTE INOR BEZAIN AUSARTA ETA ADORETSUA DA, ONGI HEZIA ETA KULTURAZ JANTZIA, ETA TRATUAN, BERRIZ, OSO ADEITSUA. OSPETSU EGIN ZEN KARIBE OSOAN. ESPAINIAKO MERKANTZIA-ONTZIAK GERO ETA ZUHURRAGO ZEBILTZAN, ETA ESPAINIAKO GERRA-ONTZIAK, BERRIZ, GERO ETA ZORROTZAGO...





AITONA ETA AMONA UDALEKUETAN


LIBURU BATEAN AMONA BIZIKLETAN IBILI ZEN, BESTE BATEAN AITONA PARAPENTEAN; LIBURU HONETAN, BERRIZ, AITONA ETA AMONA UDALEKUETARA JOANGO DIRA BILOBA LIBE BISITATZERA. A ZER NOLAKO KOMEDIAK HARA HELTZEKO! ETXEKO TXAKURRA ERE BERAIEKIN ERAMANGO DUTE. LIBURU HONEKIN OSATU DU EGILEAK AITONA-AMONEN IPUIN TRILOGIA. HIRUGARREN HAU ERE UMOREZ JANTZI-JANTZI EGINDA DATOR.



HIRU ZOPA BASOAREN BIHOTZEAN

IRAKURTZEAK DAKARREN ATSEGINA EZAGUTZEKO ETA HITZAK MAITATZEN IKASTEKO GONBITA DA. MAILA BAKOITZERAKO LIBURUAK KONTU HANDIZ AUKERATU ETA BALIABIDE MULTZO UGARIA ERANTSI DA: -IKASLEENTZAT LIBURU BAKOITZERAKO KOADERNOA, LIBURUA HOBETO IRAKURTZEKO; IRAKASLEENTZAT, PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LIBURU BAKOITZARI BURUZKO INFORMAZIO TEKNIKO, IRADOKIZUN ETA ABARREZ. CD-ROM BAT IRAKURGAIEN ZATIEKIN, INTERNETEKO HELBIDEKIN...

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI



DEABRUAREN EZTENA

GUSTAVO AZKENALDIAN EZ DA AZALTZEN INSTITUTUAN, BERE GELAN EGOTEN DA LUZARO IRTEN GABE, ETA JARRERA ERASOKORRA DU. AMAK, ITXURAZ BIZIMODU LASAIKO EMAKUMEAK, FAMILIA BIZI DUEN KRISI HANDIAZ JABETU BEHARKO DU -GALBIDEAN DOAZEN SENAR-EMAZTEAK, SEME DROGAZALEA...-, ETA ORDUAN AGIAN INDARRA BATU AHAL IZANGO DU, BORROKA EGITEKO ETA HONDAMENDIA SAIHESTEKO.



BERTSOTAN

**BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN,
BERTSOTAN ATALEAN BERTSOGINTZA LANDUKO
DUGU ZUEN LAGUNTZAREKIN.**

**LAN ETA JOKOAK ERABILITA, BERTSOAK,
KOPLAK ETA ABAR NOLA EGITEN DIREN
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUZUE...**

**HILABETE HONETAN, JOKO BEREZIA PRESTATU
DUGU ZUENDAKO:**

**GAURKOAN, ATAL HONETARA ONGI ETORRIAZ
GAIN, ASMAKIZUNAK ERE PRESTATU DITUZUE,
BERTSOTAN JAKINA...**

ONGI ETORRIA ATALARI

Txikitto bai dago
eskola guztian,
jende guztiak dauka
bere pupitrean.
Denborapasak daude
liburu barnean,
ta denok irakurtzen
patioa heltzean.

Ni beti nago etxean
gustura irakurtzen,
Txikitto irakurtzeak
ez nau ni aspertzen.
Maisuak daude beti
Txikitto ekartzen,
eta gazte guztiak
gaudela gozatzen.

ASMAKIZUNAK

Bertan jolasten dugu
ia egunero,
futbola debekatu
omen da honezkero.

Arratekoak daude
entrenatzen bero,
ta biharamunean
irabazten gero.

Bilbao etorbidean
dago industria,
oso ezaguna da
ta ez da berria.

Hemen jokalariek
entrenatzen dute,
oso urruti dago
kotxez joan daiteke.

Opil hori jatean
gaude gu jaietan,
anis usaina dago
Eibarko kaleetan.





Egun hortan gu goaz
mendiko elizara,
goiz ta arratsaldean
roskilak jatera.

Guztiak mozorrotu
egun berezian,
maskarak ipinita
guztiak Untzagan.

Sua egiten dute
jendea plazara,
eta ume guztiak
datoz jolastera.

MIKEL ANDER ETA UNAI DAKOTARA GOAZ

BEHIN BATEAN MIKEL EN TARDAPAN MIKEL UNAI ETA ANDER DENBOGON NAGU BIZAI



MIKEL UNAI ETA ANDER ABERTEN HAZI ZIREA

